

LEKEITIO. Joan zan urtean baino %10,58 gehiago izango dau, modifikazioak tarteko

Aurtengo jarduerarako 7.600.423 euroko aurrekontua onartu dau Udalak

Behargintza
bulegorako jentea
hartueran,
beharginen gastuak
gehitu egin dira

Lore Bengoetxea |

Lekeitioko Udalak 7.600.423,68 euroko aurrekontua eukiko dau aurtengo jarduerara gauzatzeko (1.264.604.000 pezeta), hau da, igaz baino %10,58 gehiago. Aurrekontuak aho batez onartu ditue.

Jaione Murelaga alkateak adierazo dauenez, aldaketak sartu ditue, Behargintza bulegoa zabaltzeagaz zerikusia daukienak, esate baterako. «Koordinatzaile bat hartu dogu, eta administrari bat kontratako dogu. Beraz, beharginen gastuak gehitu egin dira», dino.

Horrezaz ganera, alde zaharra berreskuratzeko helburuagaz bulego bat zabalduko dabela gogoratu dau. 66.111,33 euro gorde ditue horrako (11 milioi pezeta), eta beste 120.202,42 euro Jai Batzordearentzat (20 milioi pezeta). Azkenengo atalean, igaztik hona 18.030,36 euro gehiago izango ditue (hiru milioi pezeta).

Ikastolako mantenimentuko gastuak be hortxe daukiez, eta baita Zuberoa Garatzen Plangintza Estrategikoa garatzeko gordetako dirua be, aurrekontuen 0,7 hain zuzen be.



LORE BENGOTXEA
Eskolapeko beharrak urte bitan egingo ditue. Aurtun, 360.607,26 euro gorde ditue zereginetarako.

Bost inbertsino garrantzitsu aurreikusi ditue

Bost inbertsino nagusi egingo ditue. Gastu guztiei aurre egiteko, 781.315,72 euroko mailgua eskatu dabe, 130 milioi pezeta. Danetara, 2.712.966,42 euro inbertiduko ditue.

ESKOLAPEA. Aurtengo eta datorren urteko aurrekontuak hartuko ditu Eskolapeko obreak. Aurtun, 360.607,26 euro behar ditue (60 milioi pezeta).

UDALETXEKO IGONGAILUA. 1.081.821,7 euro dagoz (180 milioi pezeta) Lekeitioko udaletxean igongailua egiteko.

TRINKETEKO ATERPETXEA. Beharrek urte bi iraungo dabe. Aurtun, 390.657,86 euro daukiez (65 milioi pezeta). Aurreratu dabenez, proiektua eskatuta dago.

KULTUR ETXEA. 300.506,05 euro dagoz beharrak amaitzeko (50 milioi pezeta).

LOHIAK. Edukiontzia aldatu egingo ditue. Horretarako, 60.101,21 euro daukiez (hamar milioi pezeta). Horrezaz ganera, lohien kamioi barria be erosi dabe, eta horretan beste 180.303,63 euro gastauko ditue (30 milioi pezeta).

LABURRERAN

ONDARROA

Nikaraguako txotxongiloen ikuskizuna izango da Bide-Onera zineman

Ondarroako Udaleko Kultur Batzordeak antolatuta, Nikaraguako Guachipilin txotxongiloen antzerki taldeak *Cuecalt* izeneko antzezlanak aurkeztuko dau gaur goizean umeentzat kiroldegian, eta 20:00etan nagusientzat Bide-Onera zine antzokian. Sarrereak hiru euro balio dau. «Maitasunari egindako omenaldia da, eta ipuin latinoamerikarrak eta Nikaraguako dantzak tartekatzen ditu», azaldu dabe antolatzaileek.

Euskal presoan eskubideen aldeko bizikleta martxea izango da bihar

Sasoire euskal presoan eskubideen aldeko Ondarroako plataformak bizikleta martxea antolatu dau Lea-Artibai eskualdean, biharko. Goizeko bederatzietan urtengo dabe Itsas Aurre

plazatik. Handik aurrera, haxe izango dabe bidea: Oleta, Gizaburuaga, Aulesti, Munitibar, Bolibar, Markina-Xemein, Berriatua eta Ondarroa. «Edozeinek parte hartzeko modukoxe ibilbidea da, erritmo motelean joango gara eta», adierazo dabe antolatzaileek. Martxan joan ezin dabenei bide hegaletik bizikletan doazanak animetako eskatu deusie.

BERRIATUA

San Gregorio jaiak bertsolariekin eta mendi urteereagaz agurtuko ditue

Berriatuarrak San Gregorio jaien azkenengo egunetan sartu dira. Bihar, 21:30etik aurrera, bertsolari gazteek Berritxu Sarian indarrak neurtuko ditue, eta domekan, Bizkaiko Eskola Kiroleko azken mendi urteerea izango da. Rokodromoa, pintxoak, poniak, trikitilariak, oilarren arteko burrukak, pelota partiduak eta beste gauza batzuk lotu ditue San Gregorio jaiak amaitzeko.

AGENDEA

LEKEITIO

Iparraldeko haizeak: Goizean, eskola, ikastola eta Iparraldeko gazteen arteko topaketak izango dira, plazan, hondartzan eta kiroldegian; 13:30ean, Kukubiltxo taldearen *Ekidazu Astesandia* antzezlanak kiroldegian, eta bertso afaria Beitia jatetxean, 22:00etan. Azken horretarako sarrerak loar tabernan dagoz.

ONDARROA

Antzerkia: *Itoitzeko urtegia* antzezlanak izango da 19:00etan Itxas Aurren, Eskilantxarri taldeak antolatuta.
Doctor Deseo: 23:00etan joko dabe. Sarrerak zortzi euroan dagoz Lekeitioko Ganbaran, Markina-Xemeingo Iruzubi tabernan, Mutrikuko Badi bodegoian eta Ondarroako Zurrumurrun eta Kafe Antzokian.

ONDARROA

Kresala Alkartek Kresala Astea egingo dau datorren astean

L.B. |

Azken urteetako ohitureari jarraituta, Ondarroako Kresala Kultur Alkartek Kresala Astea ospatuko dau datorren asteleheneetik aurrera. Alkarteko ikasleek agerraldia egingo dabe barikura bitartean, eta zapatuan Kresala Eguna izango da.

Gurasoek batez be, eta herritarrek orokorrean, Kresala Kultur Alkarteko umeen ekitaldiekin gozetako aukerea eukiko dabe, datorren asteleheneetik hasita. Dantza, kantu eta tresna agerraldiak egingo ditue; astelehenean eta eguaztenean Kresala Alkartearen egoitzan, eta martitzenean eta eguenean, Udalaren berbaldi aretoan. Ganera, barikuan, hilak 24, pailazoen saioa izango da Ibaiondo plazan, 17:00etatik aurrera.

Ekitaldi nagusiak, dana dala, zapatuan —hilak 25— helduko dira, Kresala Eguna da eta. Ikurrinea igongo dabe Kresala Alkartek Arta Bidean daukan egoitzan, eta bertatik, musika bandea, umeen koroa, eta pandero eta trikitixa joleak kalejiran joango dira alamedaraino. Bertan, saioa eskainiko dabe herritarren aurrean. Bertso bazkariaren laguntzeagaz, eguna jai giroan jarraituko dabe.

Zatozte eta Behargintzak ikastaroa prestatu dabe

L.B. |

Ondarroako Zatozte merkatarien alkartek eta Behargintza zentruak, alkarregaz beharrean, elikagaien manipulatuak txartela barritzeko ikastaroa antolatu dabe, doan. Alimek-ek, enpresa presakuntza iraunkorreko ikastaroen barruan, harategi eta urdandegiei zuzendutako ikastaroak eskaini deusiez. Bederatzi ordukoak izango dira, eta maiatzaren 20tik 21era egingo dira, udaletxean, 14:45etik 16:45era.